




Hezkuntza-administrazioek eta ikastetxeek hezkuntza-plataforma digitalak kontratatzeke eta erabiltzeko oinarrizko printzipioak



2026ko martxoan
argitaratutako gida

I. Hitzaurrea

Hodeiko hezkuntza-plataforma digitalen erabilerak arrisku eta erronka espezifikoak dakartzate datu pertsonalen babesaren esparru juridikoaren barruan. Hala geratu da agerian datuak babesteko agintaritzek egindako zenbait adierazpenetan. Hain zuzen ere, hala azaldu dute Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eta Gardentasunaren eta Datu Babesaren Andaluziako Kontseiluak, ardatzean Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) funtsezko alderdi batzuk jarrita: tratamenduaren printzipioak, gardentasunaren eta informazioaren eginbeharrak, tratamendu-mandatuaren eskakizunak,

eraginaren ebaluazioa eta arriskuen azterketa, diseinutik abiatutako eta lehenetsitako datuen babesa, eskubideen egikaritzapena eta nazioarteko transferentzien arloko bermeak. Antzeko arazoak identifikatu dituzte Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako kontrol-agintaritzek.

Testu honetan, kontrol-agintaritzen artean adostutako oinarrizko printzipio batzuk ezartzen dira, eta plataforma teknologikoen bidez hezkuntzaren esparruan datu pertsonalak tratatzen dituzten agente eta operadoreei zuzentzen zaizkie printzipio horiek.

II. Hezkuntza-ingurune digitala eta adingabeen babesa

Hezkuntza-plataforma digitaletan aukera ematen diete ikasleei, irakasleei eta familiei linean elkarreraginean eta lankidetzan aritzeko, hezkuntza-helburuekin. Plataforma horiek ezartzen dira bete egin behar delako ikasleen konpetentziadigitalagaratzeko eta irakaskuntza-funtzioa errazteko lege-agindua.

Halakoak kontratatzeak erantzukizun berezia dakar. Ukituak, neurri handi batean, adingabeak dira batez ere, eta haiek euren datu pertsonalen babes espezifiko behar dute (DBEOren 38. kontuan hartuzkoa). Eta tratamenduaren dimentsioa berebizikoa da: plataforma horiek

aldi berean milioika adingabe uki ditzakete. Adingabearen interes gorenarekin dela-eta, haiek ukitzen dituzten tratamendu guztiak modu sendagoan aztertu behar dira.

Inguruabar horri gehituta, ikasleek eta haien familiek plataforma ez dute borondatez erabiltzen. Aitzitik, hezkuntza-zeregina betetzeko eskura jartzen diren tresna instituzionalak dira, eta, gerora, ikasleek, aitek, amek edo tutoreek plataforma horrekin bat egin behar dute.

III. Hezkuntza-plataforma digitalen izaera eta lotutako subjektu eta zereginak

Plataforma horiek hodeiko aplikazio eta zerbitzu multzo batez osatuta daude. Aplikazio eta zerbitzu horiek kanpoko hornitzaile teknologiko batzuek jartzen dituzte eskura, eta hainbat funtzionalitate eskaintzen dituzte: ikasleen bilakaera ebaluatzea eta erregistratzea, komunikatzea, biltegiratzea, lankidetzako edizioa egitea eta ikasgelaren kudeaketarekin lotutako beste batzuk. Datuen babesaren ikuspegitik, hiru dimentsio bereizi behar dira.

Zerbitzuei dagokienez, plataformetan hezkuntza-zereginari lotutako oinarriko zerbitzu batzuk jasotzen dira, hala nola ikasgela birtualak, biltegiratze-espazioa, komunikazioa, tutoretza edo bideokonferentzia. Horiekin batera, zerbitzu gehigarri edo hautazko batzuk eskaintzen dituzte, hezkuntza-funtzio horrekin zuzeneko harremana izan dezaketenak, edo ez, hala nola bilatzaileak, bideo-plataformak edo adimen artifizialeko tresnak; nolana ere, halakoak multzo gisa eskaintzen zaizkie ukituei, bat egiteko unean. Hala ere, baliteke azken zerbitzu horiek kontratu-baldintza berezien mende egotea eta tratamendu-mandatuaren esparrutik kanpo egotea. Halaber, batzuetan, baliteke hornitzaileak zerbitzu horiei buruz tratamenduaren arduradun gisa jardutea, helburu propioen onerako.

Datuei dagokienez, bereizi behar dira erabiltzaileek plataforma erabiltzean ematen edo sortzen dituzten datuak (dokumentuak, komunikazioak, kalifikazioak, lanak eta hala badagokio, plataforma erabiltzeko jarraibide edo ohiturak) eta plataformaren beraren erabileraren eta funtzionamenduaren ondorioz automatikoki biltzen eta sortzen diren datuak (IP helbideak, gailua-

ren identifikagailuak, kokapenaren datuak, jardura-erregistroak, cookieak, erabilera eta elkarreragin-metadatuak). Baliteke arduradunak zehaztasunez ez ezagutzea eta benetan ez kontrolatzea beste datu horien tratamenduaren nondik norakoak.

Zereginari dagokienez, hornitzailearen kokalekuak ez du kalifikazio bat eta bakarra. Erabiltzaileek oinarriko zerbitzuetan emandako edo sortutako datuei dagokienez, hornitzaileak tratamendu-eragile gisa jardun dezake, arduradunaren jarraibideen arabera. Hala ere, aldi berean tratamenduaren arduradun gisa jardun dezake gutxienez bi kasutan: bere kabuz zehazten dituenean plataformaren beraren erabilerak eta funtzionamenduak automatikoki biltzen eta sortzen dituen datuen tratamenduaren helburuak eta bitartekoak, eta hezkuntza-funtzioaz bestelakoak diren zerbitzu gehigarriak ematen dituenean helburu propioetarako. Zeregina zehaztean kontuan hartu behar da, kasuan kasu, nork hartzen dituen benetan erabakiak tratamenduaren helburu eta bitartekoei buruz, eta baloratu behar da kontratuaren baldintzen arabera zein funtzio dauzkan, ezertan galarazi gabe DPBEBLOren 33.2 artikuluan bildutako xedapenak, lege horren arabera arduradun baita bere izenean jarduten duena edo datuak helburu propioetarako erabiltzen dituen, nahiz eta eragile gisa agertu, kontuan hartu gabe kontratazio publikoaren berezitasunak.

IV. Oinarrizko printzipioak

I

Datu pertsonalen tratamenduan eskubideak eta askatasunak erabat errespetatzea

Hezkuntza-plataforma digitalen ondorioz egiten den datu pertsonalen tratamenduak osorik errespetatu behar ditu interesdunen oinarrizko eskubide eta askatasunak, bereziki adingabeenak. Lehenetsunez, adingabeak ukitzen dituen tratamendu oro baloratzean, adingabearen interes gorena hartu behar da oinarri.

Plataforma bat hezkuntza-administrazioei doan eskaintzeak ezin du murriztu ikasleen, familien edo irakasleen datu pertsonalen babes-maila, ez zuzenean, ez zeharka.

2

Tratamenduaren arduraduna argi eta garbi zehaztea

Hezkuntza-administrazioek eta ikastetxeek modu proaktiboan eta benetan onartu behar dute tratamenduaren arduradun direla, erantzukizun hori eskuordetu gabe edo lausotu gabe.

Hezkuntza-administrazioak plataforma bat ikastetxeen eskura jartzen duenean, argi eta garbi zehaztu beharko da funtzioen banaketa, baita, hala badagokio, ardurak maila batzuen eta besteen artean banatzeko modua ere.

3

Legitimazio-oinarriak eta helburuen mugaketa zorrotza

Hezkuntza-plataformaren erabileraren ondorioz egiten den datu pertsonalen tratamenduak zilegitasun-oinarri baliozko bat eduki behar du, helburu bakoitzari eta tratamendu-arduradun bakoitzari egokিত.

Hezkuntza-administrazioek eta ikastetxeek hezkuntza-funtzioa egikaritzean egiten dituzten tratamenduen legitimazio-oinarria interes publikoaren izenean burutu-

3. Legitimazio-oinarriak eta helburuen mugaketa zorrotza

tako eginkizun bat da (DBEOren 6.1.e artikulua), aplikatu beharreko hezkuntza-arloko legeriaren arabera. Oinarri horren babespean daude soil-soilik funtzio hori egikaritzeko egiten diren tratamenduak. Helburu horretatik harago doan edozein tratamendu egiteko, berariazko justifikazio bat eman behar da.

Plataformaren bidez eskaintzen diren zerbitzu gehigarri edo hautazkoetako bat hezkuntza-funtzioari ez badagokio edo ikasleen hezkuntzarako eta orientaziorako beharrezkoa ez bada, ez da aktibatu behar adingabeei zuzendutako ingurune instituzional batean. Plataforma bat nahitaez ezartzeak ez du esan nahi plataforma hori ikasleei hezkuntza-helburuaz bestelako zerbitzuak eskaintzeko kanal bat bihurtu ahal denik. Zerbitzu gehigarri bat hezkuntza-administrazioak eta ikastetxeek aktibatu ahalko dute baldin eta hezkuntza-funtzioarekin harremana badauka; hain zuzen ere, hezkuntza-administrazioak eta ikastetxeek justifikatu beharko dute harreman hori, eta tratamendua eraginaren ebaluazioan jaso beharko dute. Plataformaren erabileraren eta funtzionamenduaren ondorioz sortutako datuei dagokienez, hornitzaileak datu horiek hezkuntza-funtzioaz bestelako helburu batzuetarako erabiltzen baditu, tratamendu horietarako zilegitasun-oinarri propio eta beregain bat beharrezkoa izango da.

Plataforma bat adingabeek hezkuntza-helburuarekin lotutako funtzioetarako erabiltzen dutenean, egoera horretan, hornitzailearen interes legitimoa (DBEOren 6.1.f artikulua) nekez izan daiteke oinarri egokia edo, orokorrean, nahikoa, helburu komertzialak dauzkaten tratamenduetarako, edo produktu edo zerbitzuak hobetzeko, publizitatea egiteko, profilak sortzeko edo helburu analitikoetarako, hornitzaileen helburu propioei begira. DBEOren 6.1.f artikulua arabera, interesduna haur bat denean, haztaperen bereziki zorrotza egin behar da, eta, helburu horietarako, orokorrean, haztaperen hori ezin da ebatzi hornitzailearen interes komertzialaren alde, interes hori hezkuntza-helburuaz bestelakoa baita, adingabeen eskubide eta askatasunen aurka (DBEOren 38. kontuan hartuzkoa).

Gauzak horrela, orokorrean, mandatuaren esparruan, hezkuntza-plataformak egiten dituen datu-tratamenduak onargarriak izango dira, baldin eta automatikoki sortutako tratamendu horiek kontratatutako zerbitzua alderdi teknikoan modu seguru batean emateko ezinbestekoak badira. Kasu zehatz batzuetan, plataformaren hornitzaileak arduradun gisa jarduten duenean bere interes legitimoa aldarrikatuz, DBEOren 6.1.f artikulua betetzen duela egiaztatu beharko du: bilatzen den interesa legitimoa izatea, tratamendua interes horri erantzuteko beharrezkoa izatea eta interes horien gainean interesdunaren interesak edo oinarrizko eskubide eta askatasunak ez egotea, kontuan hartuta artikuluko horrek haztaperen zorrotz-zorrotza eskatzen duela interesduna adingabea denean. Nolanahi dela ere, tratamendu horiek DBEOren 5. artikuluko printzipioak errespetatu behar dituzte, bereziki helburua mugatzea, datuak minimizatzea eta kontserbazio-epea mugatzea.

4

Eraginaren ebaluazioa eta datuak babesteko ordezkariaren parte-hartzea

Plataforma bat funtzionatzen hasi aurretik, arduradunak datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin behar du (DBEOren 35. artikulua). Adingabeen datuen eskala handiko tratamendua egiten denean hodeiko teknologien bitartez, hainbat elementu kontuan hartuta ikusten da ebaluazio hori nahitaez egin behar dela. Eraginaren ebaluazioak barnean hartu behar ditu plataformaren erabileraren ondoriozko tratamendu guztiak. Jaso beharko da 2. printzipioan azaltzen den zeregin-azterketa, eta gainera, zilegitasun-oinarrien egiaztapena, 3. printzipioaren arabera, eta interesdunen eskubide eta askatasunetarako arriskuen ebaluazio espezifiko bat, zeinak kontuan hartuko baititu tratatutako datu guztien nolakotasuna, nora-inokoa, testuingurua eta xedeak.

Hasierako faseetatik, datuak babesteko ordezkariak plataforma aztertzeko, hautatzeko eta ezartzeko lanetan parte hartu beharko du, eta eraginaren ebaluazioan bertan, mandatu-kontratuaren berrikuspenean eta zerbitzua konfiguratzeko lanean ere parte hartu beharko du. Eraginaren ebaluazioa ez da unean-uneko egingizun bat. Berrikusi eta eguneratu behar da tratamenduaren baldintzetan aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean, adibidez zerbitzu berriak txertatzean, hornitzailearen kontratuaren baldintzak aldatzean edo identifikatutako arriskuek ebolutzionatzen dutenean.

5

Gardentasuna eta informazioa

Ikasleek, haien familiek eta irakasleek informazio osoa, irisgarria eta ulergarria jaso behar dute plataformaren erabileraren ondoriozko tratamendu guztiei buruz (DBEOren 12., 13. eta 14. artikulua). Eginbehar horren mendean daude arduradunak egindako tratamenduak nahiz hornitzaileak arduradun gisa interes propioetarako egiten dituenak.

Ez da nahikoa pribatutasun-politika generikoetara jotzea, politika horiek hainbat dokumentutan barreiatuta daudenean edo halako moduz idatzita non ezinezkoa den zehazki jakitea zein diren helburuak, tratatutako datuen kategoriak, kontserbazio-epeak edo hartzaileak. Adingabeei zuzentzen zaienean, hizkera argi eta erraza erabiliz eman behar da informazioa (DBEOren 12.1 artikulua). Tratamenduaren arduradun bakoitzak bere gain hartu behar ditu informazioa emateko dauzkan eginbeharrak, ezarritako antolaketa-ereduari jarraikiz. Halaber, plataformatik sortzen diren tratamenduak behar bezala jaso behar dira tratamendu-jardueren erregistroan (DBEOren 30. artikulua), hori ezinbesteko baldintza baita gardentasun-arloko eginbeharrak betetzeko.

6

Tratamendu-mandatuaren kontratua eta azpieragileen kontrola

Plataformaren erabilera mandatu-kontratu batek eraendu behar du, zeinak erabat bete behar du DBEOren 28. artikulua. Kontratu horretan idatziz jaso beharko dira, tratamenduaren xedea, iraupena, nolakotasuna eta helburua, datu pertsonalen eta interesdunen kategoriak, arduradunarentzat irisgarria eta ulergarria den modu batean. Kontratu-arloko dokumentazioaren bidez, arduradunak gai izan behar du mandatuaren norainokoa eta baldintzak zein diren argi eta garbi jakiteko. Baldintza horiek hainbat dokumentutan eta lehentasun-arau konplexu eta aldatzeko modukoekin barreiatu arren, hornitzaileak eta arduradunak euren eginbeharrak bete beharko dituzte nahitaez.

Arduradunak eragileari jarraibideak emateko benetako gaitasuna eduki behar du. Kontratu-klausulek ezin diote hornitzaileari esleitu tratamenduaren funtsezko elementuak alde bakarretik aldatzeko ahalmena, elementu horien artean daudela helburuak, tratatutako datuen kategoriak, segurtasun-baldintzak, nazioarteko transferentzien araubidea edo zerbitzu berriak txertatu ahal izatea. Tratamenduaren mamia aldatzen ez duten doikuntzak bideratu ahalko dira arduradunari aldeztaturik jakinarazteko prozeduren bidez. Zerbitzuaren edo kontratuaren baldintzak maiz edo modu konplexu batean aldatzen badira, halako moduz non arduradunak ezin duen etengabe dokumentu batean jaso tratamenduaren zilegitasuna, inguruar bar hori nahikoa arrazoi izan daiteke plataforma erabiltzeari uzteko edo kontratua behar bezala betearaz dadila eskatzeko.

Arduradunak baimendu behar du azpieragileak kontratatzea (DBEOren 28.2 artikulua). Baimen orokorra ematea erabakitzen denean, baimen horrekin batera, gaur egungo eta etorkizuneko azpieragile guztiek datuen babesaren arloan bete behar dituzten betekizun estandarizatuak aurkeztu beharko dira. Arduradunak azpieragile bakoitzaren identitatea, kokapena eta tratamenduen helburuak zein diren jakin behar du, eta azpieragile jakin batek eskatutako estandarrak betetzen ez ditue-nean aurka egiteko eskubideari eutsi behar dio. Eragileak bermatu beharko du azpieragileek beren gain hartzen dituztela datuak babesteko eginbeharrak. Arduradunak dokumentu batean jaso behar du zer egiaztapen-mekanismo aplikatuko dituen eta zer maiztasunekin, azpieragileek benetan betetzen dituzten egiaztatzeke. Egiaztapen horren intentsitatea proportzionala izango da tratamenduak interesdunen eskubide eta askatasunentzat duen arriskuarekiko.

Eragileak arduradunaren esku jarri behar du datu pertsonalen segurtasunari buruz DBEOren 32. artikulutik 36.era bitartean ezarritako eginbeharrak betetzen direla bermatzeko behar duen informazio guztia (DBEOren 28.3.f artikulua), bere eginbeharrak betetzen dituela frogatu behar du, eta auditoretzak eta ikuskapenak egiteko aukera eman (DBEOren 28.3.h artikulua). Eskubide horrek efektiboa izan behar du,

6. Tratamendu-mandatuaren kontratua eta azpieragileen kontrola

eta ezin da bete, besterik gabe, ziurtagiri generikoetara edo txosten estandarizatu-tara joz, baldin eta, hala, arduradunak tratamenduaren baldintza zehatzak egiaztatu ezin baditu.

Kontratuak zerbitzua amaitzean aplikatu beharreko baldintzak jaso beharko ditu, baita arduradunari datuak osorik itzultzea eta itzulketa hori egin ondoren arduradunak datu horiek ezabatzea ere (DBEOren 28.3.g artikulua), barnean direla hezkuntza-funtzioa ematen jarraituko dela bermatzeko neurri egokiak.

7

Nazioarteko transferentzien bermeak

Plataforma ezarri aurretik, arduradunak aztertu beharko ditu hartutako irtenbide teknologikotik sortzen diren nazioarteko datu-transferentzia guztiak (DBEOren V. kapituluak). Horiek aztertzean, kontuan hartu behar dira datu-fluxu guztiak, barnean direla azpieragileen jardueratik eratortzen direnak eta plataformak automatikoki jasotako eta sortutako datuen tratamendutik eratortzen direnak.

Hirugarren herrietara egin beharreko transferentzia orok babes izan behar du DBEOren V. kapituluaren araberrako baliozko mekanismo bat, adibidez Europako Batzordeak hartutako egokitzapen-erabaki bat, edo berme egokien bidez egin beharko da, bereziki kontratuetarako klausula-ereduen bidez.

Egokitzapen-erabakirik ezean, berme egokiak ematen badira Europako Batzordearen kontratuetarako klausula-ereduen bidez edo DBEOren 46.2 artikuluan ezarritako beste edozein tresnaren bidez, arduradunak kasuz kasu egiaztatu beharko du ea helmugako herrialdeko ordenamendu juridikoak bermatzen duen babes-maila funtsean Europako Esparru Ekonomikoaren parekoa den. Maila hori bermatu ezin denean, neurri osagarri efikazak hartu beharko dira. Ebaluazio hori dokumentu batean jaso beharko da, baita eguneratu ere.

DBEOren 49. artikuluan aurreikusitako salbuespenak ez dira oinarri egokia transferentzia sistematiko eta jarraituak babesteko, besteak beste halakoak sortzen baitira hezkuntza-plataforma baten ohiko erabileraren ondorioz.

Datu-fluxuei buruzko zehaztugabetasuna edo berme nahikorik ez izatea nahikoa arrazoia izan daiteke plataformaren erabilera ez baimentzeko.

8

Datuen babesa, diseinutik abiatuta eta lehenetsita

Hasierako egoeran, hezkuntza-helbururako ezinbestekoak diren datuak soilik tratatzeko moduan konfiguratu behar da plataforma (DBEOren 25. artikulua). Hezkuntza-funtzioarekin zerikusirik ez duten zerbitzu gehigarriek, lehenespenez, desaktibatuta egon beharko dute, eta datuak automatikoki jasotzeko funtzionalitateak ahalik eta txikienak izango dira.

Arreta berezia jarri beharko da plataformak ez dezan egin datu-kategoria berezien tratamendurik, ezta alderdi teknikoan edo antolakuntza-alderdian halakorik ahalbidetu ere (DBEOren 9. artikulua), salbu eta legez aurreikusitako salbuespenen bat gertatzen bada. Era berean, argazkien eta ikus-entzunezko edukiaren tratamendua hezkuntza-helbururako behar bezalakoa, egokia eta beharrezkoa denera mugatu beharko da; horretarako, erabilera desegokiak saihestuko dituzten protokoloak ezarriko dira, eta dagokion oinarri juridikoa bermatuko da.

Hornitzaileak printzipio horiek benetan aplikatzeko bidea ematen duten konfigurazio-aukerak jarri behar dizkio eskura arduradunari. Arduradunak erabilera-protokoloak eta aldizkako egiaztapenak ezarri beharko ditu, konfigurazio horri denboran zehar eutsiko zaiola ziurtatzeko.

9

Informazioaren segurtasuna

Arduradunak eta eragileak neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatu beharko dituzte, tratamenduak ikasleen eskubide eta askatasunetarako dakarren arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko (DBEOren 32. artikulua), kontuan hartuta tratatutako datuen nolakotasuna eta interesdunen kalteberatasun berezia.

Segurtasun Eskema Nazionaleko segurtasun-neurriak bete beharko dira arduraduna administrazio publiko bat denean eta tratamenduaren eragile den plataformak hari zerbitzuak ematen dizkionean.

Mandatuaren kontratuak bermatu beharko du hornitzaileak arduradunari jakinaraziko dizkiola datu pertsonalei eragiten dieten segurtasun-arrakalak, bidegabeko atzerapenik gabe, eta arduradunak kontrol-agintaritzari jakinarazteko eginbeharra bete ahal izateko epearen barruan (DBEOren 33. eta 34. artikulua).

IO Interesdunen eskubideak

Tratamenduaren arduradunak bermatu behar du benetan egikaritzen direla datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta haren aurka egiteko eskubideak eta erabaki automatizatuen objektu ez izateko eskubidea, bai arduradun gisa egiten dituen tratamenduei dagokienez, bai hornitzaileak eragile gisa egiten dituen tratamenduei dagokienez (DBEOren 15. artikulutik 22.era bitartean).

Legitimazio-oinarria interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat edo, hala badagokio, interes legitimoa denean, aurka egiteko eskubidea egikaritzeko mekanismoak ezarri beharko dira (DBEOren 21. artikulua). Aurka egitea baiesten bada, arduradunek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte, ukituak hezkuntzarako oinarrizko eskubidean diskriminaziorik edo konparaziozko bidegabekeriarik jasan ez dezan.



Datuak Babesteko
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de
Protección de Datos



Consejo de Transparencia
y Protección de Datos
de Andalucía